

# FORU KOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK ANTONIO LOPEZ GARCIA JAUNARI 2012KO KULTURAREN VIANAKO PRINTZEA SARIA EMATEKO EKITALDIAN EGINDAKO HITZALDIA

Errege agurgarriak:

Atsegin handiz zuzentzen natzaizue, Nafarroako herritarron izenean, foru komunitate honetara ongietorria egiteko, izan ere, gure foru hau Espainiako atal berezia da, eta haren funtsezko zati, zati aktibo eta zati arduratsua sentitzen da. Zuek hemen egotea, Jauna, Andrea, oso atsegingarria da beti lur hauetan, gure errealitateak ezagutzeko duzuen interesa erakusten duelako, eta, horri esker, gure estimua eta esker ona agertzeko aukera dugu.

Leireko San Salvador monasterio honetara itzuli zarete. Nafarroako historia luze eta emankorra biltzen duen leku enblematikoenetako bat da, eta, aurten, bi mendeurren garrantzitsu ospatuko ditugu: batetik, Navas de Tolosako guduen zortzigarrena, 1212. urtean Iberiar Penintsulako erresuma kristauen esfortzuak bateratu zituena; bestetik, Nafarroako konkistaren bosgarrena, zenbait urte beranduago, gure erresuma hispaniar monarkian sartzea ekarri zuena. Urteurren historiko hauek ospatuko ditugu gertaera horiek gehiago eta hobeto ezagutzeko, ikertuz, alderatuz eta zabalduz; horrela, historiak eta kulturak elkar gaitzaten eta, Nafarroan, Espainian eta munduan elkarrekiko adiskidetasun eta estimuzko bideak eraikitzen ere lagun gaitzaten.

Monasterio honetan, gure erresumako erregerik zaharrenak lurperatuta dauden lekuan, Nafarroako kulturaren sari nagusia entregatzeko tradizioari berriz ekitea erabaki dugu, Vianako Printzerriaren zuen errege-titulua daraman saria hain zuzen. Balio handia du sari honek, beti etortzen zaretelako ekitaldi honetara. Aurten, gainera, bi hamarkada bete ditu, eta hori dela eta pozez gainezka gaude.

Kulturaren Vianako Printzearen Sariak literaturaren, musikaren, ingeniartzaren edo arkitekturaren pertsona ospetsuak saritu ditu aurreko urteetan, eta, orainoan, sormen plastikoaren, pinturan, marrazketan eta eskulturan islatzen den adierazpenaren artearen esparrura joan da. Edertasuna, sentimenduak eta giza balioak adierazteko erabilitako baliabide horiek antzina dagoeneko

erabiltzen ziren, uneak eta pertsonaiak betikotzeko, sormenik gorena erakutsiz.

Antonio Lopez, 2012ko Kulturaren Vianako Printzearen Sariduna, gure aroko artista plastiko handia da. Haren lana sormen-prozesu oso landuaren emaitza da, eta badirudi misterio baten berri eman nahi digula, sakonean itaundu ondoren maisuak bere pinturaren objektuei atzeratzea lortzen duen gako bat gisa; eta, gako hori lortutakoan, gure eskura jarri du, errealitatea hobetu uler dezagun.

Kritikariek diote Antonio Lopez egiaren pintorea dela, lan eta xehetasun bakoitzean zuzenean inplikatzeko delako, Arte Ederren Eskolan zuen irakaslearen agindu horri jarraituz ("Osoago!"), lan gero eta perfektuagoa lortzeko dena ematera animatzen zuena, sentikortasuna eta sentimenduak erabil zitzaizkion.

Antonio Lopezen lanaren erreferentziak Espainiako edo munduko edozein tokitan ezagut daitezke, zuzenean edo zeharka; Nafarroan, zorionez, zuzenean antzematen ditugu.

Geuk zorte handia dugu: urtero hemen izaten dugu Antonio Lopez. Hasieran Tuteran izan zen; geroago, 2006. urtetik, udan, Figurazioari buruzko Pintura Tailer bat zuzentzen du Nafarroako Unibertsitatean. Antonio Lopezek Juan Jose Aquerreta pintore handia ere laguna du, eta harekin batera lan egiten du, uda guztietan, Iruñean, Nafarroako eta Espainiako, Europako, Amerikako edo Asiako pintoreei eskolak ematen; guztira, 30 ikasle dira. Eskola horietan, teknikak eta metodoak ikasten dituzte, aholkurik onenak jasotzen dituzte, eta, batez ere, maisu handia ezagutzen dute, modu erraz eta argi batean bere ezagutza erakusten duena. Horrez gain, bere lanen balio etiko eta moral sakonez ere janzten dira.

Zorionak, Antonio jauna, Nafarroak, artista unibertsal moduan duzun balio handia eta profil pertsonal nabarmena goraiatu nahi izan dituen sari honengatik. Urte hauetan lortu dugun harreman bikaina ere finkatu nahi izan du. Zure izaera apalak eta benetakoak erakartzen gaituelako, itzulgingururik, nagusikeriarik eta harrokeriarik gabeak. Hori da lur honetako gizon eta emakumeek eskertzen dugun izaera, eta horregatik hain zuzen ere ikusi dugu, zu, gutako bat zarela, eta adiskidetasun zintzo eta sakona lortu dugu. Ongi pentsatuz emandako saria da, artistikoki dituzun meritu handiak aintzatesteko, baina bihotzarekin emandakoa ere izan da, zuzen

sentitzen dugun estimu eta giza mirespenarengatik, zure izaerarengatik, arima eta bizitza jartzen duzula egiten duzun gauza guztietan, gogo handiz eta uste osoz. Zorionak, Antonio jauna, zuri eta bere senide guztiei!

Bukatzeko, Jauna, Andrea, gure eguneroko errealitatearekiko estimu handia duzuela jakinda, Nafarroaren gaur egungo egoeraren eta behar dugun gizarte- eta ekonomia-erritmoari eusteko bultzatzen ari garen ekimenen berri ematea ere gustatuko litzaidake, labur. Krisi luze eta atsekabegarri honen ondorioak jasaten ari gara. Eragozpenak eta zailtasunak sortzen gaitu; lanpostuak desagerrarazten ditu, ondasunik preziatuenak badira ere; inbertsioak eta aukerak murrizten ditu, eta guztion animoan ere eragina du.

Horren kontra borrokatzeko, herritar gehienek borondateak batzen ditugu, desberdintasun ideologiko edo taktikoen gainetik ere arituz, hersturarik handieneko neurri gogorak aplikatuz, eta,aldi berean, ekimen berritzaileak sustatuz, gure ustez, etorkizun hobearen duten sektoreetan, hala nola ekonomia berdea, osasunaren ekonomia eta talentua, enpresa-ekimena, ikerkuntza, gure enpresen nazioartekotzea.

Horrekin guztiarekin, gizarteak, oro har, sakrifizio handiz jasaten ari den egoeratik aurrera ateratzea espero dugu, gure ustez, alda daitekeelako, gure enpresek, gure erakundeek eta gure gazteek duten giza kapital handia erabiliz. Ilusio horrekin lanean jarraitzen dugu, azken garaietako joera aldatzeko, eta aurrera egiteko, berriro, bai enpleguan bai ongizatean.

Eskerrik asko Errege Gorentasunak hemen egoteagatik!. Gaur arratsaldean Iruñera joango gara, Nafarroako Hezkuntzaren eta Kulturaren arloan ditugu bi azpiegitura berri eta miresgarri ikusteko: Musikaren Hiria eta Liburutegia eta Filtoteka. Zuek hemen egoteak pozten gaitu, eta Nafarroan lanean jarraitzeko animatzen gaitu, Espainiako eta Europako esparru orokorrean, gizarte hobearen lortzeko. Eskerrik asko!